

Presatxikiak mantendu eta konpontzeko jarduketak egiteko erantzukizunpeko adierazpena

Adierazpen-egileak adierazten du, bere erantzukizunpean, uren legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa duela, Administrazioaren esku jarriko duela eskatzen zaionean, eta aitortzen horri dagokion betebeharrak betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen duela denboran zehar.

Adierazpen hau betetzeko "Presatxikiak mantendu eta konpontzeko jarduketak egiteko erantzukizunpeko adierazpenaren jarraibideak" kontsultatu behar dira, agentziako webgunean eskuragarri izanik: <https://www.uragentzia.euskadi.eus/inicio/>.

Inprimaki hau betetzeko, idatzi **letra larriz**, eta **markatu gurutze batez** dagozkion laukitxoak. **Izartxo gorria duten datuak nahitaez bete behar dira.**

1 Adierazpen-egilearen datuak

Adierazpen-egilearen datuak beti bete beharko dira, nahiz eta ordezkariaren datuak ere adierazi.

Izen-abizenak/Sozietatearen izena(*):		Sexua(*):
NAN/IFZ(*): Ej:00000000P/ A0000000P □ □ □ □ □ □ □ □ □ □	Lurralde historikoa(*):	Udalerria(*):
Herria(*):	Helbidea(*):	Posta-kodea(*):
Telefonoa(*): □ □ □ □ □ □ □ □ □ □		Helbide elektronikoa:

Ordezkaririk izanez gero

Izena(*):		Abizenak(*):	Sexua(*):
NAN/IFZ(*): Ej:00000000P/ A0000000P □ □ □ □ □ □ □ □ □ □	Lurralde historikoa(*):		Udalerria(*):
Herria(*):	Helbidea(*):		Posta-kodea(*):
Telefonoa(*): □ □ □ □ □ □ □ □ □ □		Helbide elektronikoa:	

Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistroan mota honetako espedienteetarako alta emanda dagoen ordezkari bat edukiz gero, ordezkari horrek lehentasuna izango du eskabide honetan adierazten denaren aurretik

Jakinarazpenei buruzko datuak^(*)

Jakinarazpenetarako hizkuntza	☐ Euskera
	☐ Gaztelania
Jakinarazpen motak (pertsona fisikoak)	☐ Elektronikoa
	☐ Posta bidezkoa

2 Ezaugarriak

Kokapena

Lurralde historikoa ^(*) :	Udalerria ^(*) :
Kokapena (auzoa, parajea...) ^(*) :	UTM 30N ETRS 89 koordenatuak (berrikusi hemen: https://uragentzia.euskadi.eus/visor-de-informacion-geografica-de-la-agencia-vasca-del-agua/webura00-minima/es/) ^(*) :
Katastroko erreferentzia ⁽ⁱ⁾ :	UTMX
Poligonoa ⁽ⁱ⁾ :	UTMY
Lurzatia ⁽ⁱ⁾ :	

ETRS 89 sistema erabiltzen da, dekretu hau oinarri hartuta: 1071/2007 Errege Dekretua, uztailaren 27koa, Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duena.

Markatu eskatzen dituzun aukerak eta dagokion izena^(*).

Ur mota (adierazi izena, gurutzea markatu ondoren) ^(*) :	☐ Ibaia:
	☐ Erreka:
	☐ Lakua:
	☐ Urmaela:
	☐ Urtegia:
Emakidaren erreferentzia-zenbakia:	

Markatu eskatzen dituzun aukerak^(*).

☐ Ibilgua	☐ Ezkerraldea
☐ Zaintza-eremua	☐ Eskuinaldea

Naturagune babestuetako jarduketek ezin izango dute erantzukizunpeko adierazpenaren prozedurara bildu, eta aldez aurreko baimena eskatu beharko dute, salbu eta deklarazioarekin, aldeko txostenarekin edo jarduketa bermatzen duen dagokion erakunde kudeatzailearen baimenarekin batera aurkezten bada.

Mota

Markatu eskatzen dituzun aukerak^(*).

☐ Mantentze- eta konpontze-obra, aprobetxamendu hidroelektrikoen emakidadunen presa txikietan eta presetan edo ureztatzaile-komunitateen harguneetan
☐ Hobetze-, konpontze- edo mantentze-obra edo teknologia eguneratzekoak, emakidadunen presa txikietan edo harguneetan.
Azpiegituraren jabetza
☐ Bai
☐ Ez
Beste batzuk:

3 Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Adieraz ezazu, gurutze batez, aurkeztu behar duzun dokumentazioa bakarrik.

- ☐ Erantzukizunpeko adierazpen-eredua, behar bezala beteta eta sinatuta(*).
- ☐ Ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, hala badagokio.
- ☐ Jarduketaren deskribapen-memoria, gutxienez honako hauek jasoko dituen: magnitudearen balorazioa, beharraren justifikazioa, gauzatzeko modua eta erabiliko den makineria(*)
- ☐ Jarduketa-eremuaren dokumentazio grafikoa, planoak, argazkiak edo krokisak, jarduketa eta dimentsioak baloratzeko aukera ematen dutenak.
- ☐ Naturagune babestuetako jarduketaren kasuan, jarduketa abalatzen duen erakunde kudeatzailearen aldeko txostena edo baimena.

4 Adierazpenaren epealdia(*)

☐	Jarduerak data hauen artean egingo dira (urtea/hilabetea/eguna):		y		(3 hilabete gehienez)
--------------------------	--	--	---	--	-----------------------

JARDUKETAK EGITEN HASI AURRETIK, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN IKUSKAPEN-ZERBITZUAREN TELEFONORA DEITU BEHARKO DA (945 011 700), EXEKUZIO-DATA ZEHATZAK JAKINARAZTEKO.

OHARRA: Jarduketak dokumentu hau aurkeztu eta gutxienez 15 egun baliodun igaro ondoren hasiko dira (ez dira larunbatak, igandeak eta jaiegunak sartzen).

5 Deklaratzaileak honako hau adierazten du:

- Presatxikiak mantentzeko eta kontserbatzeko jarduketetarako erantzukizunpeko adierazpen hau ezagutu, onartu eta betetzeko konpromisoa hartzen du.
- Errespetatzen ditu jabari publiko hidraulikoaren helburuak eta osotasuna, eta, bereziki, uren kalitatea eta emaria eta ibaiaren ekosistemaren eta biodibertsitatearen egoera ona.
- Badaki, adierazitako APELen 69. Artikuluraren 4. Parrafoan xedatutakoaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenean jasotzen den edozein datu edo informazio zehatza ez bada, faltsua bada, edo administrazio eskudunari erantzukizunpeko adierazkena aurkeztu ez bazaio, deklaraturakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, jarduera eskubidearen edo eragindako jarduera gauzatzen jarraitzea ezeztuko du egitate horien berri izaten den unetik aurrera, hargatik, eragotzi gabe egon litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. Inguruabar horiek deklaratu dituen Administrazio Publikoaren ebazpenpenak zehaztu ahal izango du interesdunak aitortu edo baliatu aurretik egoera juridikoa itzultzeko duen betebeharra edo dagokion jarduera hasi aurretik, bai eta legeak zehaztutako denbora-tarte batean xede berarekin beste prozedura bat eskatzeko ezintasuna ere, guzti hori, aplikatu beharreko arau sektorialetan ezarritako baldintzen arabera.
- Badaki erantzukizunpeko adierazpenean jasotako jarduera bertan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko dela, eta adierazitako epearen barnean. Epe hori igaro eta jarduketa gauzatu ez bada, ezin izan da aurrerago egin, beste adierazpen bat aurkeztu ezean. **Gauzatutakoaren eta adierazitakoaren artean aldeak ikusten badira, konpromisoa hartzen du eragindako aldaketak leheneratzeko.**
- Jarduketa aldeztu aurretik amaitzen badu ere, ibilgua husteko baldintza egokietan utziko du; Uraren Euskal Agentziak neurriak hartu ahal izango ditu, hala egin dela ziurtatzeko.
- Bere gain hartuko ditu jabari publiko hidraulikoari eragindako kalte guztiak, bai eta jarduketaren eremuan dauden partikularren nahiz estatuaren ondasunei eragindakoak ere.
- Badaki urak har dezakeen eremu batean lan egin beharko duela, eta, beraz, uholdeei dagozkien arriskuak aztertu eta haiei aurre egiteko neurri egokiak hartuko ditu; Agentziak ez ditu bere gain hartuko uholdeengatik sortutako kalteak.
- Adierazpen hau egiteak ez du esan nahi onuradunak ez dituenik lortu behar beharrezko diren beste baimen batzuk, administrazio zentralerako, autonomikoko edo tokiko administrazioerako erakundeek emandakoak.

9. Badaki deklarazio horrek ez duela aurretik epaitzen jarduketaren xede diren lursailen jabetza, eta ez duela inolako eskubiderik ematen jabari publiko hidraulikoko ondasunen gainean, ezta hirugarrenen ondasunen gainean ere.
10. Badaki erantzukizunpeko adierazpenean deskribatzen diren jardueretan parte hartzen duten pertsona guztiek bertan ezarritako baldintzak betetzearen arduraduna dela.
11. Nahitaez eskuratu beharko du informazioa, obrak egin behar dituen lekuko ur-masan zebra-muskuiluen larbak eta zebra-muskuilu helduak ote dauden jakiteko. Urak izurri horrekin infektatuta badaude:
 - Uraren Euskal Agentziak berariaz prestatutako "EAEko arroetan ontziak eta ekipoak desinfektatzeko protokoloa" aplikatu beharko du lanerako makinetan eta ur infektatua ukitzen duten bestelako elementuetan, zebra-muskuiluaren larbak eta zebra-muskuilu helduak ez daitezen zabaltu infektatuta ez dauden uretara.
 - Era berean, ibilguan lanen bat egitea planifikatzen badu, kontuan izan behar du debekatuta dagoela infektaturik egon daitekeen ura eramatea zebra-muskuilurik gabeko beste ur-masa batzuetara.
12. Jarduketak honako baldintza orokor hauek betez egingo dira:
 - Egin beharreko jarduketek ez dute eraginik izan behar ez ibaiertzeko landaredian, ez zortasun-eremua.
 - Ibilgura gehien eraldatutako guneetatik sartuko da, ahalik eta gehien gutxituz ibaiertzeko eta zortasun-eremuko landarediaren gaineko zein ibilguko ezponden gaineko eraginak.
 - Ibilguaren barneko lanak, ahal dela, agorraldian egingo dira.
 - Ibilguaren barnean ahalik eta gutxien erabiliko dira makinak.
 - Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira uraren uhertzea edo degradatzea edo uretan isurketak egitea sahiesteko, eta, horrelako egoeraren bat gertatzen bada, lanak bertan behera utziko dira behar beste denboran eta beharrezko diren neurriak hartuko dira, bereziki, gai kutsatzaileak maneiatzean, hala nola, gasolioa, olioak edota hormigoi freskoa.
 - Egin nahi den jarduera orok ez du hustubidearen edukieraren murrizketa adierazgaririk suposatuko, eta, gainera, jarduera gauzatzen den bitartean, neurri egokiak hartu beharko dira, hustubidea une oro bermatzeko.
13. Adierazpen honetan presa txikietan egin beharreko jarduketak honako hauek kontuan hartuko dira beti:
 - Presa txikiaren edo hartze-elementuaren altuera handitzen ez dutenak.
 - Deribazio-egituraren aldaketarik ez egitea, deribatutako emaria aldatzea badakarte.
 - Ez badakarte xede duten erabilera aldaketa
 - Parte diren emakidaren funtsezko ezaugarriak aldatzen ez badituzte.

6 Lursailera sartzeko baimena

Baimena ematen die Uraren Euskal Agentziako langileei eta gainerako enplegatu publiko eta agintari eskudunei erantzukizunpeko adierazpenean inplikaturako lursailera sartzeko, egokitze jotzen dituzten egiaztapenak eta ikuskapenak egin ahal izateko. Horretarako, eskatzen dituzten datu guztiak emango dizkie.

Adierazpen hau Uraren Euskal Agentziak esleituak dituen egiaztatze-, kontrol- eta ikuskaritza-ahalmenen mende geratzen da, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69. artikuluko 3. apartatuarekin.

Erantzukizunpeko adierazpen hau Uraren Euskal Agentzian erregistratu beharko da, jarduketa hasi baino gutxienez 15 egun baliodun lehenago (hiru aste natural). Epe hori igarota, interesdunak adierazpen honetan jasotako jarduerak hasi ahal izango ditu, goian adierazitako epean. Batera ezintasunen bat badago, jarduketa aurrera eraman ezina jakinaraziko zaio adierazpen-egileari.

Eskatzailearen sinadura (edo ordezkariarena)^(*)

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Tratamendu-jarduera	Uraren arloko baimenak eta emakidak kudeatzea
Arduraduna	Uraren Euskal Agentzia
Helburuak	Behar diren baimen-espeditenteak kudeatzea, obrak eta beste jarduketa batzuk egiteko jabari publiko hidraulikoko esparruetan, zortasun-eremuetan eta ibilguen zaintza-eremuetan, bai eta EAEren eskumeneko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko babes-zortasunaren eremuan ere. Jabari publiko hidraulikoan isurketak egiteko baimen-espeditenteak kudeatzea, bai erkidego arteko arroetan, bai erkidego barnekoetan, bai eta EAEren eskumeneko uretan lurretiko isurketak egiteko baimenak kudeatzea ere. Jarraipen analitikoak. Txostena egitea Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko 16/2002 Legearen aplikazio-eremuan. Isurketen errolda eta inbentarioa. Emakiden eta baimenen espeditenteak kudeatzea, azaleko nahiz lurpeko ura biltzeko, EAE barruko arroetan. Administrazio-errekurtsoak. Jabari publiko hidraulikoan nabigatzeko eta flotazioan jarduteko erantzukizunpeko adierazpena. Jabari publiko hidraulikoan eta dagokion zaintza-eremuan kontserbazio-jarduketa txikiak egiteko erantzukizunpeko adierazpena. Itsas-lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan eraikinak edo instalazioak konpontzeko, hobetzeko, finkatzeko eta berritzeko obrak egiteko erantzukizunpeko adierazpena. Familia bakarreko etxebizitzetatik datozen hiriko hondakin-urak udal-saneamenduan sartzeko aukerarik gabe isurtzeko erantzukizunpeko adierazpena.
Legitimazioa	○ Tratamendua beharrezkoa da lege-betebeharrak betetzeko. ○ Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko.
Hartzaileak	○ Foru-aldundiak. ○ Estatuko Administrazioaren beste organo batzuk. ○ Toki-administrazioiko beste organo batzuk. ○ Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
Eskubideak	Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere (www.euskadi.eus/servicios/10842/).
Informazio gehigarria	Gure web-orrian kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/137500-cap2-es.shtml
Araubidea	○ Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES). ○ 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).